

LAN-ESKAINZA: ENERGIA TEKNIKARIA (USURBIL)

Lanpostuaren deskribapena:

Energiaren inguruko udal-bulegoa eramango du. Energiaren inguruan hezkuntza lana egingo du, energiaren aurrezpen eta eraginkortasunaren garrantzia azpimarratuz, baita energia berriztagarrien inguruko zalantza eta aholkularitza eskainiz eta pobrezia energetiko egoeran egon daitezkeenei lagunduz ere. Horrez gain, udalaren energia kudeaketa hobetzea ere izango da aholkulariaren beste zereginetako bat, udaleko hirigintza eta zerbitzuetako sailekin harremanetan.

Herritarrei zuzendutako zerbitzuaz gain, energiaren alorrean udalak egin beharreko zereginak ere bere gain hartuko ditu teknikari berriak: udal-argiteriaren inbertsio plana diseinatu, udal-energia inbentarioa osatu eta jarraipen prozedura zehaztu, udal-eraikinen auditoretza energetikoak gauzatu eta inbertsio plana proposatu, energia berriztagarrien jarraipena egin eta sorkuntza aukeren bideragarritasuna egin, eta abar.

Ezinbesteko baldintzak:

- Goi mailako ingeneriari titulua edo gradua
- Euskera C1
- Gazte enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatuzko laguntzen 2020ko ekitaldiko deialdiak (EHAA 2020/07/02) ezarritako baldintzak:
 - a) 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.
 - b) Desenpleguan egotea eta enplegu-eskatzaileria izatea, alta egoeran, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan, eta bete behar duten lanpostuari dagokion hezkuntza-maila izan behar dute.
 - c) Gazteen Bermerako Sistemari inskribatuta egotea.
 - d) Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriri batean bizi behar da, eta, zehazki, dirulaguntzaren eskabidean adierazitakoan (Usurbil).Kontratazio-unean bete behar dira a), b) eta d) letretan arautzen diren baldintzak, eta kontratua abiatu aurreko egunean bete behar da c) letretan arautzen dena.

Baloratu beharreko baldintzak:

- Euskera C2
- Energia arloko masterrak izatea
- Perfil pertsonala: ekimena, komunikazio gaitasunak eta sozialak, taldean lan-egiteko gaitasuna, enpatia, antolakuntza eta sinetsi gaitasuna.
- Deialdian ezarritako lehentasun ordena beteko da (8.3 artikulua): a) DSBE prestazioaren titularrak edo onuradunak. b) 30 urteko adinetik gertuen dauden pertsonak. c) 6. artikuluko baldintzak betetzen dituzten gainerako gazteak.